



2021/2022 denboraldia

19. ZIRKULARRA

ERREGIONALEN 1. MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Erregional 1. Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

1. MULTZOA		2. MULTZOA		3. MULTZOA	
1	BEHOBIA C.D.	1	SANPEDROTARRA F.E	1	LAZKAO K.E.
2	BETI GAZTE K.J.K.E.	2	TRINTXERPE C.D.	2	SEGURA GOIERRI K.E.
3	DUNBOA EGUZKI C.D.	3	ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE	3	EUSKALDUNA S.D.
4	LANDETXA K.T.	4	TOURING KE	4	INTXURRE K.K.E.
5	MARIÑO C.D.	5	LENGOKOAK K.E.	5	OSTADAR S.K.T.
6	SAN MARCIAL C.D.	6	SPORTING DE HERRERA	6	USURBIL F.T.
7	BETI ONA C.D.	7	ASOLEUS C.F.	7	ATOTXA RIVER F.C.
8	ORERETA KAFAA, F.C.	8	AXULAR K.K.E		
GRUPO 4			GRUPO 5		
1	MUTRIKU F.T.	1	ALOÑA MENDI K.E.		
2	ZUMAIAKO F.T.	2	ARETXABALETA K.E. UDA		
3	ARRUPE CHAMINADE C.D.	3	BERGARA K.E.		
4	ANTIGUA LUBERRI K.E.	4	EIBARTARRAK F.T.		
5	AMARA BERRI K.E.	5	ELGOIBAR C.D.		
6	DONOSTIAKO KALEREN LAGUNAK	6	UROLA K.E.		
7	IRAULI BOSTEKO K.K.	7	ANAITASUNA C.D.		
8	VASCONIA C.D.	8	IKASBERRI K.E.		



2. LEHIAKETA SISTEMA

Erregionalen 1. Mailako liga txapelketa **39 taldek** osatzen dute, 8 taldeko lau multzotan eta 7 taldeko multzo batean banatuta. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

A.Igoera Fasea:

Multzo bakoitzeko lehen lau sailkatuek (4x5 = 20), hamar taldeko bi multzotan banatuta, fase honetan parte hartuko dute, itzuli bikoitzera (18 jardunaldi).

Maiatzaren 29an jokatuko da finala, partida bakarrera eta zelai neutralean.

Maiatzaren 29an eta ekainaren 5ean, zozketa egin ondoren, igotzeko kanporaketak jokatuko dira partida bikoitzera (3.-3.) eta horrela hurrenez hurren, beharrezkoa izanez gero.

Goragoko kategoriako beste batekin mendekotasun-harremanik ez duten lau sailkatu onenak igoko dira Gorengo Mailara.

3. RFEF mailako jaitsieren arabera, talde bat edo bi gehiago igo ahalko dira mailaz.

Bi multzotan edo gehiagotan eratzten diren kategorietan, mailaz igotzeko edo mailari eusteko eskubideak sailkapen-postu bera lortu duten taldeen artean jokatuko dira. Hau da, lehenak, bigarrenak, hirugarrenak eta horrela, hurrenez hurren, beste multzoko sailkapen-postu bera duten taldeen aurka jokatuko lukete.

B. Gipuzkoako Kopa

Gainontzeko taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

5. DIZIPLINA ARAUDIA



Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

6. COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General